

Harrera ehundu

Euskadin atzeritarrei harrera egiteko
tokiko politikak diseinatzeko eskuliburuaren
DOKUMENTU LABURTUA

Erantzukizun publikoa, integritasun-bokazioa eta oinarri komunitarioa



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATEA, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



MIGRAZIOARAKO
EUSKAL
ITUN SOZIALA

PACTO SOCIAL
VASCO PARA
LA MIGRACIÓN



Gizarteratzea eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

Argitalpen hau **“Euskadin atzerritarrei harrera egiteko tokiko politikak diseinatzeko eskuliburua”**-ren dokumentu laburtua da (2024an eginda)

Deskargatu PDF formatuan hemen (QR)



Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Euskadiko udalerrietan atzerritar jatorriko pertsonen harrera egiteko printzipio orokorrak	5
3. Testuinguru arauemaile eta instituzionala	7
4. Kontzeptu eta ikuspegiak	9
4.1. Immigrazioa eta atzerritartasuna	
4.2. Harrera eta herritarren integrazioa	
4.3. Ikuspegiak eta perspektibak	
4.4. Erantzukizun publikoa	
4.5. Integraltasun-bokazioa	
4.6. Oinarri komunitarioa	
4.7. Harrera-zerbitzua	
5. Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak	18

Sarrera

1. Sarrera

“Euskadin atzeritarrei harrera egiteko tokiko politikak diseinatzeko eskuliburua” EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartek eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin egindako prozesu baten emaitza da. Prozesu horretan, hiru lurralde historikoetako 19 udalek* eta mankomunitateek hartu dute parte.

Halaber, prozesuaren eta edukiaren metodologia Biltzen zerbitzuko teknikariek egin dute, hau da, Eusko Jaurlaritzako Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailari atxikitako gizarteratzea eta kulturarteko bizikidetzaren euskal zerbitzukoek.

Eskuliburua EUDELeko Batzorde Eragileak onartu zuen 2024ko urriaren 10ean, eta funtsean praktikara bideratutako tresna bat eskaintzea du helburu, oinarri teoriko sendoetan oinarritua eta aspalditik martxan jarri duten dozenaka udalerriren esperientziak babestua. Neurri handi batean, Harrerarako Euskal Ereduaren izendatzaile komun minimoa da, eta herritarrengandik hurbilen dauden erakundeek emaitza onak lortu dituztelako osatzen joan da.

Esperientzia horiek gure hiri eta herrietan bizi-proiektuak hasten dituzten atzeritar jatorriko pertsonen harrera humanoa, duina eta enpatikoa eskaintzeko erantzukizun publikoa zehazten dute. Harre-ra hori, ziurrenik, oso aspaldikoa eta ohikoa da hainbat kultura-, filosofia- edo erlijio-jardunbidetan, giza espeziearen sorreratik egin diren desplazamendu geografiko eurak bezalakoa.

Nolanahi ere, tokiko erakunde publikoek indarreko legeriak esleitzen dizkien eskumenen esparruan egindako jarduerak dira, eta, ikusiko dugun bezala, erakundeen aginduari nahiz gizartearen eskaerari erantzuten diete.

Oro har eskuliburuaren zabalkundea errazteko, dokumentu laburtu hau egin da. Bertan, arau-testuinguruaren, kontzeptu-esparruaren eta, funtsezko atal gisa, beraien udalerrian tokiko harrera-politika hedatzeko interesa duten udalek egin beharreko urratsen ibilbidearen laburpena jaso da. Gainera, dokumentu laburtu honetan printzipioen dekalogo txertatu da udal-arduradun politikoentzako orientabide orokor gisa.

Sarrera

* Eskuliburuaren prozesuan parte hartu duten udalak:

- **Azpeitiko Udala.**
- **Barakaldoko Udala.**
- **Bilboko Udala.**
- **Donostiako Udala.**
- **Durangoko Udala.**
- **Eibarko Udala.**
- **Elgoibarko Udala.**
- **Ermuko Udala.**
- **Errenteriako Udala.**
- **Galdakaoko Udala.**
- **Getxoko Udala.**
- **Irungo Udala.**
- **Oñatiko Udala.**
- **Usurbilgo Udala.**
- **Vitoria-Gasteizko Udala.**
- **Zarauzko Udala.**
- **Lea Artibaiko Mankomunitatea.**
- **Busturialdeko Mankomunitatea.**
- **Tolosaldea Garatzen, eskualdeko garapen-agentzia.**

Euskadiko udalerrietan atzeritar jatorriko pertsonen harrera egiteko printzipio orokorrak

2. Euskadiko udalerrietan atzeritar jatorriko pertsonen harrera egiteko printzipio orokorrak

Nazioarteko Zuzenbidearen hainbat tresnaren orientabideen esparruan eta Konstituzioak, Atzeritartasunari buruzko Lege Organikoak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak eta 3. paragrafoan zehaztuko diren plangintza-tresna autonomikoen jarraibideek ezartzen dutenaren esparruan, toki-erakundeei eskumenak dituzte migratzen duten pertsonen gizarte- edo herritar-integrazioaren arloan.

Harrera integrazio-prozesu horren lehen fasea da eta, 4. kapituluan ikusiko dugunez, harrera komunitate batera iristen diren pertsonen akonpainamendua da, herritar berritzat aitortzeaz gain, beren eskubideak eta betebeharrak modu efektiboan eskuratu eta gauzatu ditzaten. Alde horretatik, funtsezkoa da ingurune instituzional, sozial eta administratibo berria ezagutzea, helburu horretarako baliabide eta zerbitzu espezifiko bidez.

EUDELe eta Eusko Jaurlaritzak atzeritar jatorriko pertsonak integratzeko politiken koordinazioaren arloan dituzten berezko eginkizunen esparruan, jarraian euskal toki-erakunde guztiei eskaintzen zaizkien printzipio batzuk aipatuko dira, arlo horretako erantzukizun publikoa zehazteko gidari izan daitezkeen.

1. ERANTZUTEA bai etortzen diren pertsonen buruzko agindu etiko bati, bai euskal gizartearen behar bati, demografiari, lanari edo zaintzari dagokienez. Atzeritar jatorriko pertsonen harrera egitea eta gizarteratzea ezinbesteko baldintza da gizarte osoaren ongizateari eusteko, eta, aldi berean, haien lekuan egongo bagina jaso nahi genukeena eskaintzea eskatzen du.

2. ONARTZEA agindu etiko horri eta euskal gizartearen beharrari berari emandako erantzunak erantzukizun publikoari eragiten diola, integritasuna eta oinarri komunitarioko bokazioa duen harrera bermatzeko. Izan ere, beharrezkoa da orain arte egin denarekiko jauzi kuantitatibo eta kualitatibo bat egitea tokiko harrera-politikan.

3. Eskubideen ikuspegia **APLIKATZEA**, kultura artekoa, komunitarioa, genero-ikuspegia eta intersektionala, eta harrera-politikan hizkuntza-dimentsioa kontuan hartzea.

4. Tokiko eskumena **GARATZEA** maila anitzeko gobernantzaren harreraren eta integrazioaren, beste udalerririk batzuekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuz, eta tokiko erakunde bakoitzaren arloak aktibatuz.

Euskadiko udalerrietan atzerritar jatorriko pertsonen harrera egiteko printzipio orokorrak

5. Tokiko harrera-politikak **GAUZATZEA**, informazioa, orientazioa eta akonpainamendua eskaintzen duten eta atzerritarren eta bertakoen arteko elkarrekintza sustatzen duten baliabide, programa eta zerbitzu espezifikoetan. Politika horiek tresna hauetan gauzatuko dira, besteak beste: errehabilitazio-planak, protokoloak eta harrera-zerbitzuak.

6. Hirugarren sektore sozialarekin eta, bereziki, migrazio-sarearekin **LANKIDETZAN ARITZEA**, harrera-politiken diseinuan eta inplementazioan parte-hartze aktiboa sustatuz, besteak beste, lankidetzaren publiko-sozialeko formulen bidez.

7. Zerbitzu publikoetarako (osasuna, hezkuntza, gizarteratzea, berdintasuna, euskara eta gaztelania ikastea, aisialdia, kirola, etab.) berdintasuneko sarbidea **BERMATZEA**, bai eta administrazio-erregularizaziorako eta erroldatzerako ere.

8. Eskubideei, prestakuntzari eta gizarte- eta lan-arloko orientazio goiztiar eta pertsonalizatuari buruzko informazioa **EMATEA**, eskatzen duten atzerritar jatorriko pertsonen, Euskal Enplegu Sarearekin lankidetzan.

9. Harrera-politikak tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako tresnekin **LOTZEA** (adibidez, gorrotozko gertaeren aurrean tokiko protokoloak), elkarbizitzarako erreferentzia eta xenofobiaren eta arrazismoaren aurrean erantzun eraginkorra emateko mekanismoa eskainiz.

10. Familia berriro elkartzearekin, etxeko lanarekin, haurren arretarekin, indarkeria matxistekin eta abarrekin lotutako errealitate espezifikoak **ERANTZUTEA**, baliabide, programa eta zerbitzu espezializatuen bidez.

Testuinguru arauemaile eta instituzionala**3. Testuinguru arauemaile eta instituzionala**

Nazioarte mailan, erreferentzia ugari egiten zaizkie nazioarteko zuzenbidearen tresnei, hala nola 2030 Agenda, Migrazio Seguru, Ordenatu eta Erregularrerako Munduko Ituna edo Errefuxiatu eta Migratzaileentzako New Yorkeko Adierazpena, itun horren aurrekoa.

Guztiak bat datoz esatean garrantzitsua dela botere publikoek printzipioak onartzea errespetuzko harrera, gizatiarra eta duina eskaintzeko; informazio egokia, eskuragarria, berariazkoa eta zabala eskaintzen dute, beren eskubideei dagokienez; eta genero-ikuspegiarekin eta ikuspegi intersektionalarekin. Era berean, migrazio-proiektuen zati handi batean motibazio nagusia lan-arloari lotuta dagoela ezin denez ahaztu, ezinbestekoa da horri buruzko informazioa sartzeari, enplegua eta lan duina lortzea errazteko; betiere, arreta berezia jarritz emakumeek hala sektore feminizatuetan nola prekarioenetan eta sexuagatiko diskriminaziorako joera handienekoetan duten egoerari.


Gure testuingurura etorritik, Migraziorako Euskal Itun Sozialak —euskal erakunde eta eragile sozial, politiko eta sindikal asko bertara atxiki direlarik— harrerari eta integrazioari buruzko konpromisoak ere zehazten ditu. Ildo beretik, Erronka Demografikorako 2030eko Euskal Estrategia, 2030eko Euskal Enplegu Estrategia edo Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana aipatzen dira.

Legearen ikuspegitik, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizar-teratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoak —aurrerantzean, LOEX— honako hauek ezartzen ditu (2 art. hir.): “Botere publikoek atzerritarrak erabat gizarteratzea sustatuko dute”; “Herri-administrazioek immigranteen eta gizarte hartzailearen arteko integrazioaren helburua txertatuko dute politika eta zerbitzu publiko guztietan, izaera transbertsalez, immigranteen parte-hartze ekonomikoa, soziala, kulturala eta politikoa sustatuz”; edo “Estatuko Administrazio Orokorra, autonomia-erkidegoak eta udalak, beren integrazio planak erreferentziazat hartuta, lankidetzan arituko dira esparru honetan, eta beren ekintzak koordinatuko dituzte”.

Testuinguru arauemaile eta instituzionala

Aipatutako erreferentzia horiek guztiak interesgarriak dira, Euskadiko toki-erakundeentzako 2/2016 Legeak —aurrerantzean, ETEL— adierazten baitu (17.35 artikulua) udalerrien berezko eskumena dela “Immigrazio alorrean gizarteratze-politikak kudeatzea, atzerritartasunaren inguruko legeriarekin bat etorrita eta erakunde autonomikoekin lankidetzan”.

Harrera atzeritarren gizarteratze-prozesuaren lehen fasea dela ulertuta, hori ere tokiko erakundeen eskumena da. Izan ere, IVAPek argitaratzen duen 2023 Tokiko Gidak, Euskadiko toki-administrazioentzako erreferentzia nagusietako bat dena bere jardueren orientazioari dagokionez, harrera immigrazioaren gizarteratze- edo hiritartasun-politiken zati bat dela identifikatzen du, eta politika horietan toki-erakundeek dute eskumena.




Kontzeptuak eta ikuspegiak

4. Kontzeptuak eta ikuspegiak

Harreraren esanahiak intuizioz izan dezakeen esanahiaz harago, politika publiko bat definitzean, planifikatzean eta baliabidez hornitzean, ezinbestekoa da gaia behar bezala ezagutzea eta hura behar bezala definitzea. Dokumentu honen planteamendua “EAEko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak” dokumentuan jasotakoaren bertsio findu eta araztu bat da.

4.1. Immigrazioa eta atzerritartasuna


Dokumentuan zehar, bi irudi aipatuko ditugu —immigrazioa eta atzerritartasuna, funtsean—; bakoitzak ikuspegi propioari erantzuten dio, nahiz eta askotan nahastu egiten diren. Immigrazioari buruz hitz egiten dugunean, ikuspegi demografikotik ari gara. Aitzitik, atzerritartasunari buruz hitz egiten dugunean, ikuspegi legal edo juridiko batetik hitz egiten dugu.



Immigrazioak, jatorrizkoa ez den gizarte batera pertsonak iristeak dakartzan biztanleria-mugimenduei egiten die erreferentzia. Atzerritartasuna hitza, aldiz, funtsean, termino juridikoa da, eta gizarte hartzailean jatorrizkoak ez diren pertsonen egiten die erreferentzia.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

Espainiako nazionalitatea izan gabe gure lurraldean bizi diren pertsonen kolektiboan sartzen dira Europar Batasuneko herrialdeetatik eta munduko gainerako herrialdeetatik (Europar Batasunetik kanpoko migratzaileak) migratutako pertsonak, bai eta pertsona errefuxiatuak ere. Talde horietako bakoitzari erregimen juridiko desberdina aplikatzen zaio.



Erregimen horiek integrazio-aukera eta integrazio-ibilbide oso desberdinak dakartzate berekin, eta horiek eragiten dieten pertsonen bizitza baldintzatzen dute.

4.2. Harrera eta herritarren integrazioa

Komunitate batera iristen diren pertsonen akonpainamendu prozesua da harrera, bere herritarrek, aitortuak izateaz gain, komunitateari dagozkion eskubide eta betebeharren bidez erabateko herritartasuna benetan gauza dezaten.

Zehatzago esanda, harrera lotuta dago lurraldean bizitzen ari diren pertsonak aurre egin behar dioten erakunde-, gizarte-, administrazio- eta lan-ingurune berria ezagutzeko beharrarekin. Ingurune hori ezagutzeko akonpainamendua —hainbat izapide, zerbitzu eta eremu dituen— formala edo ez-formala izan daiteke, planifikatua edo espontaneo, eta eragile instituzional, sozial edo auzotarrek eginga. Erakunde publikoek egindako alderdi formalak eta planifikatuak osatzen du harrera-politika, eta gizarte batek immigranteen etorreraren aurrean martxan jartzen dituen jarduera, baliabide, jarrera eta diskurtsoen multzoa biltzen du.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

Era berean, prozesu zabalago baten hasierako fasea da harrera. Prozesu hori migratzaileen herritar integrazioa da, eta, azkenean, behin betiko asentatuko dira. Herritarren integrazio hori bi norabidetan interpretatzen dugu, hau da, migratzaileen eta elkarrekin bizi diren gizartearen arteko egokitzapena eskatzen du, eta erantzukizuna gobernu hartzailearena, erakundeena eta komunitateena ere bada.



Iturria: geuk egina RECIren eta Blanca Garcésen hainbat materialekin.

4.3. Ikuspegiak eta perspektibak

Harrera-politikak hainbat ikuspegi ezberdinak kontuan hartuta diseinatu, inplementatu eta ebaluatu behar dira. Lehen aipatu dugun harreraren ikuskerarekin koherenteenak eta garrantzitsuenak honako hauek direla uste dugu:

A. Eskubideen ikuspegia. Eskubide horien titularren gaitasuna indartu nahi da eskubide horiek aldarrikatzeko, bai eta eskubide horiei erantzuna emateko ardura duten erakundeek eskaera horiei erantzuteko duten gaitasuna ere. Funtsezko elementuen inguruan egituratzen da, adibidez: erabateko herritartasuna, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eta zerbitzuetara baldintza berdinetan iristea.

B. Kultura arteko ikuspegia. Immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren kudeaketa modu positiboan eta inklusiboan sustatzen duen eredu pluralista da, eta printzipio hauen inguruan egituratzen da: berdintasuna, desberdintasunerako eskubidea eta interakzio positiboa.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

- C. Ikuspegi komunitarioa.** Politika publikoen hartzaileekin batera lan egiteko beharra bere gain hartzen du, gaitasun eta trebetasunak aitortuz. Komunitatea —ez termino kulturalistatzat hartuta, baizik eta harrera-prozesuan parte hartzen duten eragile instituzional, tekniko, herritar eta sozialen multzotzat— esku-hartzearen eremua eta subjektua da.
-
- D. Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektzionala.** Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeko 3.5 eta 3.8 artikuluek¹ ezartzen dute politika publiko guztietan sartu behar direla. Horretarako, berariaz aztertu behar dira emakumeen eta nesken harrera-beharrak, eta sexu/generoarekin, arrazializazioarekin, adinarekin edo klasearekin gurutzatzean sortzen diren errealitate bereziei erantzun behar zaie, besteak beste.
-
- E. Hizkuntza-ikuspegia.** Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunak eskuratzea elementu transbertsala da; izan ere, autonomian eta gizarte-garapenean eragiteaz gain, askotan, zuzenean erlazionatzen da beste arlo batzuekin, hala nola hezkuntza-arloarekin edo enpleguarenarekin. Garrantzitsua da aipatzea Euskadira iristen diren pertsonak harremanetan jartzen direla euskararen eta gaztelaniaren erabilerak lurraldeen eta udalerrien arabera desberdinak diren hizkuntza-errealitate batekin. Hain zuzen ere, egoera diglosiko horren jakitun izanik, estrategia desberdinak beharko dira udal bakoitzean, bi erronka hauei erantzuteko: euskara eta euskalgintza euskal herritar berriei hurbiltzea, eta horiek euskarara hurbil daitezen animatzea. Era berean, funtsezkoa da azpimarratzea beraiek ere beren hizkuntzen ondarearen ekarpena egiten dutela, eta ondare hori kontuan hartu beharrekoa dela.
-

¹ 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Pertsonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

4.4. Erantzukizun publikoa

Erantzukizun publikoa harrera-politiken multzoa da. Politika horien bidez, atzerritar jatorriko pertsonak errazago ezagutzen dituzte ingurune instituzional, sozial eta administratibo berriaren eskubideak. Eta praktikan jarri ahal izateko, programa, zerbitzu eta prestazio espezifiko batzuk jasotzen ditu, funtsean bi jarduera-ildori erantzuten dietenak:

- Eskubideak oinarri hartuta, ingurunea eta izapide eta zerbitzu/sistema publikoak ezagutzea, antolatzea eta erraztea, udalerrira iristen diren pertsonen ikuspegitik, bereziki atzerritar jatorrikoen ikuspegitik.
- Beste herritar batzuekin harremanetan jartzea, sare, talde, kolektibo, elkarte eta abarren bidez, garrantzi berezia izanik immigrazioaren/aniztasunaren aurrean jarrera eta diskurtso sozialak lantzeak.


Lehenengoa harrera-zerbitzuak konpondu ohi du; zerbitzu horrek informazioa, orientazioa, akonpainamendua eta beste zerbitzu eta sistema batzuetara bideratzea antolatzen ditu, beharrezkoa denean. Beraz, harrerarako tokiko politikak eraikitze giltzarria izango litzateke.

Tokiko errealitate bakoitzaren berezitasuna errespetatuz, badirudi arreta berezia jarri behar zaiela sistema/zerbitzu/eremu horietako batzuei, harrera- eta integrazio-prozesuen kalitaterako, azkartasunerako eta arrakastarako funtsezko puntu baitira. Une honetan, esperientziaren arabera, honako sektore-eremu eta eragile hauek hartuko dute parte:

- Erroldatze-izapidea: praktika egokiak hartuz.
- Erregularizatze administratiboko izapideak: Aholku-Sarea sareak ematen dituen zerbitzuekin konektatuz, eta Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak kudeatzen dituen etxebizitzaren egokitzapenari, errotzeari eta integrazio-ahaleginari buruzko txostenei dagokienez.
- Hezkuntza-eremua: funtsezkoa da aukera-berdintasunerako, euskarari dagokionez, eta funtsezkoa da atzerritar jatorriko pertsonen seme-alabak integratzeko.
- Enplegu-eremua: migratzeko motibazio nagusietako bati eta gure ekonomiaren beharrei erantzuten die. Betiere, eskubideei dagokienez, eta atzerritarren Espainiako estatuko egonaldia arautzen duen LOEX legearekin bat etorritik, eta lan-izaera sakonarekin egiten du hori.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

- Hizkuntzak ikastea: euskaraz eta gaztelaniaz, eta horretarako dauden baliabideei dagokienez: helduentzako hezkuntza-zentroak (HHI), hizkuntza-eskola ofiziala, udal-euskaltegiak, INGURA edo AISA.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna. Eskubideez baliatzeko, ezinbestekoa da berdintasunerako eta indarkeria matxisten aurkako lege- eta gizarte-esparrua ezagutzea.
- Osasuna: pertsona ororen oinarritzko eskubideetako bat da, eta, neurri handi batean, Euskal Osasun Sistemarako sarbidearen bidez konpontzen da, doakoa eta unibertsala baita.



Kontzeptuak eta ikuspegiak

4.5. Integraltasun-bokazioa

Maiz entzuten dira gizarte-ehunak sustatutako kontzeptuak, hala nola *herri-harrera* edo harrera integrala, arreta berezia jartzen saiatuz integraltasun-bokazioa duten pertsonen beharrei erantzutean. Hau da, ulertu behar da atzerritar jatorriko pertsonen lehen urratsak ematen dituztenean beren bizi-proiektuak gizarte hartzailean garatzeko, beharrezkoa dela oinarrizkoenaz, premia-koenaz edo administrazio-errealitate hutsei lotutakoaz gain besterik ere aintzat hartzea.

Integraltasunak erantzukizun publikoari eragiten dio, bai giza harrera duin eta enpatikoa eskaintzeko, bai pertsonen behar guztiei erantzuteko. Hala, bokazio hori harrera-politiketan gauzatzen den errealitate bihurtzeko, beharrezkoa da aurreko paragrafoan aipatutako ia sistema/zerbitzu/eremu guztiekin hitz egitea.

Erakundearen baliabide eta gaitasunekin bat etorritik, jarduerak garatzen edo loturak sortzen saiatu behar du, harrera transbertsalizatzeko; izan ere, horrela, modu esanguratsuan laguntzen zaio harrerari izaera integrala ematen.

Era berean, integraltasun-bokazioak berekin dakar ulertzea pertsona guztiek ez dituztela behar berak, edo, bestela esanda, pertsona batzuek, beren baldintza batzuei esker, behar espezifikoak dituztela, hala nola haurrek, emakumeek, LGTBI pertsonen, etab., eta, jakina, ezaugarri horiek gurutzatzerakoan sortutako beharrak. Beraz, integraltasuna ezin dugu generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik bereizi.

Jakina, integraltasunak euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-gaitasunak ere barne hartzen ditu. Elementu transbertsala ere badira. Hizkuntza-politikak harrera-politiketan parte hartu behar du, enplegu-, gizarteratze-, osasun-, hezkuntza- edo berdintasun-politikek duten presentzia berarekin. Hala, harrera-zerbitzuetan, pertsona migratuei honako hauen berri eman behar zaie: gure gizartean bi hizkuntza daukela, bertako ingurunean euskara nola erabiltzen den, eta hizkuntzak duen garrantzia gizartean moldatzeko, enplegua lortzeko, edo hezkuntza-sisteman duen presentzia. Hasiera-hasieratik ikusi behar dute beren bizitzako elementuetako bat dela.

Azkenik, tokiko harrera-politikak diseinatzeko, garrantzitsua da politika horiek gizarte osoaren gizarte-ongizatera bideratutako politika publikoen integraltasun zabalago eta osoagoan parte hartzea. Hala, erakundeek herritarrei jakinarazi behar diete harrera-politikak inplementatzeak berekin dakarrela, ongizatea hobetzea, ez bakarrik atzerritarrentzat, baita gizarte osoarentzat ere. Beraz, haien beharra kontuan hartzea onura komuna da, eta gizarte-kohesioari eragingo dio.

Kontzeptuak eta ikuspegiak

4.7. Harrera-zerbitzua

Zerbitzu horiek, esan bezala, harrera-politiketan behar den jauzi kuantitatibo eta kualitatiboaren giltzarri dira. Harrera-zerbitzuak (proposamena eta gomendioa horiei Harreragune izena ematea da) oso erabilgarriak dira udalerrian bizitzen ari diren eta informazioa, orientazioa eta akonpainamendua behar duten atzeritar jatorriko pertsona askorentzat, eskubideen ikuspegitik, zer izapide, zerbitzu eta arlotan moldatuko diren jakiteko.

Baina oinarritzko nodoak ere badira sistema eta zerbitzu orokorretara iristen diren herritarren fluxua antolatu eta zuzentzeko. Asmoa da horrek sistema eta zerbitzu publiko guztien arreta eta funtzionamendu hobean ere eragina izatea.

Udalerrian kokatzeko unean harrera-beharra duten pertsona guztientzat erabilgarria den arren, alderdi batzuetan nazioarteko babesa eskatzen dutenak barne, Atzeritarren Erregimen Orokorra eta Erregimen Komunitarioa aplikatu behar zaien pertsonentzat da bereziki. Hala ere, nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonak ere sartzeko dira Harreragunean, beren erreferentzia-sistemak (SAPIT) konpondu ez dituen tokiko harrera-beharak asetzeko.

Zerbitzu hau borondatezkoa, doakoa, zuzenekoa eta baldintzarik gabea da (errolatuta egotea ere ez da eskatzen), aurrez hitzordua eskatzen denean izan ezik. Hitzordu horiek une garrantzitsuetan, hala nola errolatze-unean, erraztasunak ematen ditu pertsonen joan-etorriak antolatzeko, bai harrera-zerbitzurako, bai gainerako zerbitzu eta erantzukizun publikoko sistemetarako.

Kasu bakoitzeko harrera-behar bereziei buruz profesionalak egindako aurrez aurreko elkarrizketa batzuetan zehazten da harrera, eta genero- eta intersekzio-azterketa bat egiten da pertsonekin egindako “elkarrizketa epeletik” abiatuta. Beraz, espazio bat eta denbora bat behar dira egiteko. Eta, hain zuzen ere, espazio, denbora eta profesional hori batzen ditugunean sortzen da berariazko zerbitzu bat.

Nolanahi ere, zerbitzu hori, hasieran, ez litzateke egin behar Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren diru-zorroaren esparruan, baizik eta immigrazioan, kulturartekotasunean, berdintasunean edo bizikidetzan eskumena duten arloetan.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

5. Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

1. urratsa: Bultzada partekatu bat

Maila lokalean borondateak adostea sustatzea, politikariak, teknikariak, gizarte-eragileak eta herritarrak barne hartzen dituen, harrera-politika sustatzeko edo hobetzeko.

2. urratsa: Beharren diagnostikoa

Tokiko harrera-beharrek behar bezala identifikatzea, eta, ondoren, harrera-politikarekin aktibatuko diren baliabideak behar bezala dimentsionatzea.

3. urratsa: Baliabideen gida

Erakunde-, gizarte- eta administrazio-inguruneari buruzko informazio guztia biltzea eta antolatzea, eta, ondoren, harrera-politikako gainerako prestazioak antolatzea.

4. urratsa: Harrera-protokoloa

Harrera-prozesuan parte hartuko duten eragile instituzional eta komunitario guztien esku-hartzea ordenatzea.

5. urratsa: Harrera-zerbitzua

Erantzukizun publikotik eskainiko den oinarrizko prestazioa ezartzea, eta hori gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak definitzea.

Hautazkoa: Beste zerbitzu eta baliabide osagarri batzuk

Bai erakundeak bai komunitateko eragileek aktiba ditzaketen harrera-zerbitzuaren prestazio osagarriak ezartzea.

6. urratsa: Udalen eta erakundeen arteko koordinazioa

Harreman-sistema sortzea tokiko erakundearen barruan eta beste erakunde eta gizarte-erakunde batzuekin, harrera-politika aurrera eramateko.

7. urratsa: Etengabeko ebaluazioa

Planifikatutakoa gauzatzea, aurreikusitako emaitzen lorpena eta harrera-politikara bideratutako baliabideen eta emaitzen arteko etengabeko oreka monitorizatzea.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

Prozesu edo metodologia hau hainbat tamainatako udalerrietan arrakastaz probatzen ari diren diagnostikoak, protokoloak edo zerbitzuak bezalako tresnen garapenean oinarritzen da. Helburua da edozein toki-erakundek bere kabuz harrera-politika oso bat diseinatu eta ezarri ahal izatea, EAE-ko eskumen- eta erakunde-esparruarekin bat etorritz eta arestian azaldutako esparru teorikoarekin bat etorritz.

Metodologia hori hainbat urrats sekuentzialen inguruan egituratzen da, ondo identifikatutako helburu, eduki eta emaitzekin. Hala ere, toki-erakunde bakoitzak bere errealitatera egokitu beharko du proposatutako prozesu hori.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

1. urratsa: Bultzada partekatu bat



Helburua: Maila lokalean borondateak adostea sustatzea, politikariak, teknikariak, gizarte-eragileak eta herritarrak barne hartzen dituen, harrera-politika sustatzeko edo hobetzeko.

Harrera-politika on bat inplementatzea erakundeen, gizarte-eragileen eta herritarren ekintza ehuntzeko ariketa bat da. Toki-erakundearen barruan eta erantzukizun publikoko beste zerbitzu eta sistema batzuekin harreman-sistema ona lortzea. Gure herri eta hirietan hasten dituzten pertsonen bizitza-proiektuei euskarri izango diren hainbat programa eta zerbitzu uztartzea.

Komunitatearen bultzada partekatua behar dute, hau da, behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, gizarteratzearen inguruko helburu kolektibo bat partekatuko duen eragile-multzo horrena, hala nola harrera-zerbitzu berri bat sortzea.

Bultzada partekatu hori kontrastatu egin beharko litzateke, adibidez, Udalbatzan edo tokiko erakundearen erabakiak hartzeko dagokion organoan, immigrazioko, aniztasuneko, berdintasuneko, gizarteratzeko eta euskararako tokiko teknikariekin lantaldeetan edo immigrazioko, kulturartekotasuneko, aniztasuneko, berdintasuneko edo gizarteratzeko tokiko foro edo mahaietan.

2. urratsa: Beharren diagnostikoa



Helburua: Tokiko harrera-beharrak behar bezala identifikatzea, eta, ondoren, harrera-politikarekin aktibatuko diren baliabideak behar bezala dimentsionatzea.

Beharren diagnostikoa funtsezko unea da edozein politika publiko diseinatzeko, eta harrera ez da salbuespena. Une egokia da komunitate osoari (teknikariak, hirugarren sektorea, herritarrak) eta, batez ere, udalerrian bizi diren atzeritarrei herritarrak integratzeko eta hartzeko prozesuei buruz galdetzeko eta kontsulta egiteko, eta alderdi bideratzaileak, absenteak edo mugatzaileak zein izan diren identifikatzeko.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

Harrera-argazkiaren zati kualitatiboago hori izaera kuantitatiboagoa duen beste batekin osatu behar dugu, helmugako fluxuei, jatorriei, ezaugarri soziodemografikoei eta abarri buruzko batekin. Eta prozesu horietan esku hartzen ari diren eragile guztien mapa osatu bat eraikitzeke unea ere bada.

Diagnostiko horrekin estu lotuta, batzuetan, aurrera egin daiteke atzemandako beharrei erantzuteko martxan jarriko diren ekintzen plangintzan ere. Beste batzuetan, batez ere udalerrri handiagoen kasuan, urrats edo prozesu bereizietan bereiz daitezke.

Planaz ari garenean, ibilbide honetako hurrengo urratsetan egingo ditugun jarduerak identifikatzeaz, lehenesteaz, egutegiez eta baliabide material eta ekonomikoez hornitzeaz ari gara. Beraz, puntu honetan beharrezkoa da erabakiak hartzea maila politiko-instituzionalean.

3. urratsa: Baliabideen gida



Helburua: Erakunde-, gizarte- eta administrazio-inguruneari buruzko informazio guztia biltzea eta antolatzea, eta, ondoren, harrera-politikako gainerako prestazioak antolatzea.

Harrera-zerbitzua emateko erabiltzen den materiala da, eta tokiko, foru-aldundietako edo autonomia-erkidegoetako baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa biltzen du; orokorrak herritar guztientzat edo espezifikoak migratuentzat. Jasotzen duen informazioak ez die erantzuten iritsieraren lehen uneko behar premiazkoei soilik; integraltasun-bokaziotik, hainbat sektore-eremuri eta hirugarren sektoreak eta erkidegoko ehunak eskaintzen dituen buruzko informazioa ematen ere saiatzen da.

Material hori publikoa da, eta edukiaren antolamenduak migratuen beharrei erantzun behar die. Entregatzeko une egokia erroldatze-izapidea da, baina beste edozeinetan baliagarria izan daiteke. Modu fisikoan eta online eskuragarri egon behar du tokiko erakundearen webgunean.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

4. urratsa: Harrera-protokoloa



Helburua: Harrera-prozesuan parte hartuko duten eragile instituzional eta komunitario guztien esku-hartzea ordenatzea.

Protokolo bat dokumentu batean zehazten da, eta helburua da kapitulu honetako 2. urratseko plangintzan jasotako jarduera batzuk antolatzea. Informazioa, orientazioa eta bideratzea nola, noiz, nork egingo dituen eta zer izango diren definitu nahi du. Hori egin ahal izateko, ezinbestekoa da argi izatea zein diren tokiko harrera-beharrak, zer baliabide erabili ahal izango diren horiek arintzeko, eta zer konpromiso hartuko dituzten esku hartuko duten eragileek.

Ahal dela, modu parte-hartzailean egin behar da, adibidez, 1. urratsean definitu dugun lantaldea dinamizatzuz.

Galdetu dezakegu ea posible den berariazko zerbitzu bat sortzea barne hartzen ez duen protokolo bat izatea, eskubideen ikuspegitik pentsatzen ari garenean. Hau da, ba ote litekeen atzerritar jatorriko pertsonen harreran informazioa, orientazioa eta akonpainamendua jasotzea, hori ziurtatzeko berariazko prestaziorik edo zerbitzurik egon ezean.

5. urratsa: Harrera-zerbitzua



Helburua: Erantzukizun publikotik eskainiko den oinarritzko prestazioa ezartzea, eta hori gauzatzeko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak definitzea.

Aurreko ataletan esan dugu harrerako erantzukizun publikoak baliabideak, programak eta zerbitzuak aktibatzea zekarrela. Baliabide, programa eta zerbitzu horien lehen helburua da ingurunea ezagutzea, eta, zehazki, izapide eta zerbitzu/sistema publikoak, udalerrira, bereziki atzerritik, iristen diren pertsonen ikuspegitik. Harrera-zerbitzua ematea da konpromiso hori zehaztea.

4.7 puntuan azaldu dugu jada, eta garrantzitsua da gogoratzea hori dela beharrezko den tokiko harrera-politiken jauzi kualitatibo eta kuantitatiboaren giltzarria.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak**Hautazkoa:
beste zerbitzu eta baliabide osagarri batzuk**

Helburua: Bai erakundeak bai komunitateko eragileek aktiba ditzaketen harrera-zerbitzuaren prestazio osagarriak ezartzea.

Elkarrizketa pertsonalak egiteak ez ditu konpontzen proiektuak ingurune berri batean hasten dituzten atzeritar jatorriko pertsonen harrera-behar guztiak. Horregatik, harrera-politikek integritasuna izan behar dutenez, beste programa eta baliabide osagarri batzuk aktibatu behar dira. Hala ere, programa horiek ezin dute, inola ere, 4.7 eta 5.4 ataletan aurkeztu dugun harrera-zerbitzua ordezkatu, eta ez dute ordezkatu behar.

Horietan guztietan, erantzukizun publikoa eta, aldi berean, gizarte-ehunarekiko lankidetzan sakontzeko aukerak egongo dira. Izan ere, programa eta baliabide osagarri horietako batzuek argi eta garbi indartzen dute komunitate-dimentsio hori.

Gure inguruan ezartzen ari diren programa osagarri nagusiak honako hauek dira: Ongietorri saioak; atzerritartasunari, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari edo emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko harremanei buruzko saioak; familia berriro elkartzeko prozesuen inguruko dinamikak; eta eraikuntza-proiektuak.


**6. urratsa:
Udalen eta erakundeen arteko koordinazioa**

Helburua: Harreman-sistema sortzea tokiko erakundearen barruan eta beste erakunde eta gizarte-erakunde batzuekin, harrera-politika aurrera eramateko.

Harrera-zerbitzuak (Harreragune) hainbat udal-zerbitzu eta -arlorekin koordinatzen dira, bai eta autonomia-erkidegoko zerbitzu eta sistemekin ere (kontuan hartu behar da ETElen 17. artikulua 35. atalaren literalitasuna). Eta, gainera, haietarantz deribazioak egiten dituen kasuetan, aurrez ezarritako eta adostutako prozeduren arabera egiten du.

Harreman-sistema horren irudikapena, maila anitzeko gobernantza-ariketa gisa ulertuta, irudian jasotzen duguna izan liteke.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak



Ondoren, eskema honen puntu nagusietako batzuk aipatuko ditugu:

- **Udal-barneko koordinazioa**

Udal-barneko koordinazio-gune garrantzitsu bat dago. Ia udal-arlo guztiekin egin daitekeen koordinazio horretan, batzuekikoak lehentasunezkoak jo behar dira, hala nola Alkatetzarekikoak, Berdintasunarekikoak edo Euskararekikoak.

- **Errolda zerbitzuarekin koordinatzea, bereziki**

Harreraguneko sarbidearekin oso lotuta dago, baina ez da bakarra, ez eta nagusia ere. Hala ere, une garrantzitsua da harrera-zerbitzuari buruzko informazioa emateko. Bi noranzkoko da errolda-Harreragune deribazioa.

- **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin koordinatzea**

Sistema nagusietako bat Gizarte Zerbitzuena da. Alde batetik, harrera-fasean gizarte-bazterketa egoeran edo horretarako arrisku larrian dauden pertsonak bideratzeko gune gisa. Halaber, baita sistema honek hartzen dituen gainerako gorabeheretan sartzen direnak ere, hala nola mendekotasuna edo babesik eza (haurtzarokoa edo indarkeria matxistagatikoa). Era berean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak beste pertsona batzuk ere bideratu ditzake edo bideratu ohi ditu, haien beharra harrera zerbitzu baten prestazio teknikoekin (ingurunea ezagutzea) lotuago dagoenean gizarte zerbitzuetako espezializatuenekin baino.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

• **Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin koordinatzea**

Harrera-politika bat diseinatzeko eta, bereziki, deskribatzen ari garen bezalako zerbitzu espezifikoa bat inplementatzeko, tokiko erakundeek Eusko Jaurlaritzaren babesa eta koordinazioa dute, Migrazio eta Asilo Zuzendaritzaren bidez. Zuzendaritza honek funtsezko baliabide eta zerbitzu batzuk jartzen ditu eskura. Hauek dira nagusiak:

- Aholku-sarea erregularizazio administratiborako.
- Ikuspegi, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren babesa, datu estatistikoaren, erroldaren, INEren, analisi soziologikoaren... ustiapenean, edo diagnostikoak egiteko.
- Biltzen-en akonpainamendua hainbat arlotan, besteak beste, prestakuntza, sentsibilizazioa, aholkularitza eta harrera-protokoloak egiteko.
- Tokiko erakundeei berariaz zuzendutako urteko deialdien bidez finantzaketa lortzea.
- Migraziorako Euskal Gizarte Itunaren erreferentziak eta kulturartekotasuna eta immigrazioa planifikatzeko tresnak.

• **Beste sistema autonomiko batzuekiko koordinazioa**

Atzerritar jatorriko pertsonak izaera orokorreko beste zerbitzu eta sistema batzuetara behar bezala bideratzeko. Hala, funtsezkoa izango da orientazioa ematea honako hauetarako: OTIa (osasun-txartel indibiduala) lortzeko, euskal osasun-sistemara iristeko; Lanbiderako (edo, bestela, behar den prestakuntza eta lan-orientaziorako), enplegurako sarbide erregularerako; euskal hezkuntza-sistemarako, maila eta modalitate guztietan (arreta berezia jarriko zaie adingabeei, harrera-gune nagusi gisa); edo beste zerbitzu eta sistema batzuetarako.

• **Asilo- eta babes-sistemeekin (SAPIT) koordinatzea**

Harreragunerekin lotura duen beste sistema bat, kasu honetan berariazkoa eta ez-orokorra, asilo eta babeslekuarena da. Harreragune Atzerritarren Erregimen Orokorra eta Erregimen Komunitarioa aplikatu behar zaien atzerritar jatorriko biztanleentzat pentsatuta dago, eta haren hartzaile nagusia da. Hala ere, ez die ateak ixten beren erreferentzia-sistemaren bidez konpondu gabeko harrera-beharrak izan ditzaketen beste pertsona batzuei. Horixe da nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen profil batzuen kasua.

Tokiko harrera-politika bat diseinatzeko urratsak

7. urratsa: Etengabeko ebaluazioa



Helburua: Planifikatutakoa gauzatzea, aurreikusitako emaitzen lorpena eta harrera-politikara bideratutako baliabideen eta emaitzen arteko etengabeko oreka monitorizatzea.

Politika publiko guztiak ebaluatu eta doitu egin behar dira. Harrerakoek eta, bereziki, baliabide eta zerbitzu guztien bihotz diren protokoloek dokumentu biziak izan nahi dute, hau da, errealitate aldakorrera egokitu, eta, batez ere, eragile inplikatuak eguneroko jardunean bereganatzen duten ezagutzatik abiatuta hobetu nahi direnak.

Hori dela eta, behar adina aldiz aldatu eta egokitu beharko da, helburua betetzen duela ziurtatzeko. Etengabeko berrikuspen hori, akats bat izan beharrean, bertuterik onena da egunerokoan erabilgarria eta orientatzailea izan nahi duen tresna ba.